

LAMERAKO KIOSKOA

I. Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea Bermeoko Lamera parkean kiosko berri bat eraikitzeko proiektua egitea da. Aukeratutako proiektuaren egileak Exekuzio Proiektua eta obra gauzatzeko dokumentu guztiak egin beharko ditu, Segurtasun eta Osasun Estudioa barne, gehi Obrako Zuzendaritza Fakultatiboa.

II. Baldintza tekniko orokorrak

Lamerako parkea Bermeoko gunen libreen artean garrantzitsuenetakoa da. Beraren kokapena eta berezitasunak direla eta, urtean zehar hainbat motako ekitaldi bertan antolatzen dira: kontzertuak, erakusketak, azokak, etab. Hirigintza arloan honelako gunek hiriko “areto nagusi irekiak” bezala ikusi ditzakegu. “Areto” berezi honen ezaugarri nabarmena kokapena da; mugarriztatzen duten gunen eta eraikin guztiak aparteko esanahia dute: portua hegoaldean, alde zaharreko hego-fatxada iparraldean, Eupeme Deuna eliza eta Liburutegia ekialdean eta hemeretzigarren mendeko Severino Achucarro arkitektoaren Kasinoa mendebaldean.



Inguru honetan, Lamera parke erdian, gaur eguneko kioskoa dago kokatuta. 11,3 metroko zabaleradun oktogono erregularra da eta, guztira, 106 m²ko azalera okupatzen du.





Lamerako berriztatze lanen artean, kiosko berri bat eraikitzeko erabakia hartu du Udalak. Instalazio honek dituen erabilerak modu egokiago baten betetzea da helburua:

- Ekitaldi publikoak eta kontzertu txikiak gauzatzea
- Kioskoak barne hartu behar ditu komun publikoak

Kiosko berriaren guneek, batez ere komunek, irisgarritasun baldintzak bete behar dituzte. Beste alde batetik, udal zerbitzuak erabiltzeko biltegi txiki bat (10-15 m²) ere sartzea komenigarria izango litzateke.

Horretarako, hau da, kiosko berria eraikitzeko, gehienez 110.000 euroko aurrekontua aurreikusten da (exekuzio materiala).

III. Administrazioak beretzat gordetzen dituen ahalmenak

Baldintza Teknikoen Plegu honen interpretazioan zalantzak sortzen badira Bermeoko Udalaren irizpidearen arabera argitu beharko dira.

